



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2008-10-28**

VIURTEA 1.544.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ANA ARRETXE TOLOSAKO EKINBIDE ETXEKO LEHENDAKARIA

«Erakusleiho izugarria da Lehiaketa gure herria ezagutzera emateko»

TOLOSA Urduri, baina pozik dago, Lehiaketaren atarian, «regindako lanaren emaitza ikusteko unea iritsi baita»

AURTENGOA Taiwango eta Kubako koruen parte-hartzea eta Mikrokosmosen kontzertu berezia nabarmendu ditu 4



93 espezie desberdin sailkatzea lortu zuten. IYUYA URRUTIA

Antolatzaileak «gustura» 'Mikologialdiak' eman duenarekin

LEITZA Urte luzez antolatu gabe egon ondoren, aurtan egin dute berriro; «jende ugari izan da» 11



Herriko plaza nagusian obretan ari direnez, Larraitzen eta Kalebeheran aritu ziren dantzariak. P. RENOBALÉS

DANTZARI TXIKIEN FESTA POLITA

ALEGIA 200 dantzari aritu ziren herenegun, goiz osoan zehar, Dantzari Txiki Egunean; Antolatzaileak «oso pozik» daude 3



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Garaipenaren ostean, lehen postuan mantentzen da Tolosa CF

Futbola » Real Union B taldearen aurka jokatu zuen norgehiagoka, eta 0-1eko emaitzarekin irabazi zion.

ERREDAKZIOA

Tolosak ozta-ozta baina garaipena erdietsi du asteburu honetan. Real Union Bren kontra jokatu zuten norgehiagoka, eta 0-1eko emaitzarekin irabazi zuten.

Real Unionekoak gailendu ziren partida guztian zehar, eta golak partzeko aukera gehiago izan zituzten jardunaldiko bi zatietan. Baina, ez zuten asmatu jokaldiak amaitzeko garaian. Tolosakoak eraginkorrak izan zirela esan daiteke eta Diezek sartutako golari esker garaile izan ziren.

Norgehiagoka honen ostean, Preferente Mailan lehendabiziko postuan mantentzea lortu dute. Honenbestez, mailaz jaitsi ostean, indartsu hasi dira Tolosako jokalariek eta denboraldi berriari ongi ekin diote.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 2339

Asteasu. Medikua: 943 692423

Ballarain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarain autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurrumendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Eskualdeko sei talde ariko dira kantuan, azaroaren 9ko finalean

Kultura » Sail guztietan izango da Tolosaldeko ordezkariaren bat, Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finalean.

kantuan izanda (Zumaia, Villabona eta Azkoitia) puntuazio altuena lortu duten 17 taldeak dira pasa direnak, eta horien artean dira hainbat eskualdeko.

Eskualdekoak onenen artean

Taldean atalean, Ibarra T-Klaxek lortu du finalerako txartela, *Zoo Ilogikoagoa* kantuarekin. Bikoteen artean, eskualdeko bi sailkatu dira. Alde batetik, Villabona-Adunako Kristina eta Leirek osatutako bikotea. Bestetik, Villabona-Irurako Leire eta Iñar abeslariak. Bakarlariekin artean, sailkatutako zortzi lehiakideen ar-

tetik, hiru eskualdekoak dira: Tolosako Garazi Egiguren, Ibarra Ohiare Sarasola eta Berastegiko Maialen Etxeberria.

Final handia, hemendik bi astetara

Finala, azaroaren 9an, Donostiako Antzoki Zaharrea izango da. Saioa 17:00etan hasiko da, eta sarrerak 8 euroren truke eros daitezke. Bazkideek bi euro gutxiago ordaindu beharko dituzte.

Hasieran finalean 12 lehiakidek parte hartzea aurreikusten bazen ere, txapelketan zehar izan den maila ikusirik, epaimahaikak parte-

hartzaile gehiago pasatzea erabaki du. Ez da *Acapella* kantatuko duen inor pasa (bi izan dira txapelketan zehar), baina aipatzekoa da, sei sorkuntza lan entzuteko aukera izango dela finalean. Iaz baino gehiago.

Orain, bi asteko tartea edukiko dute parte-hartzaileek finaleko jarduna prestatzeko. Bestalde, batzuek kanporaketetan bi kantu aurkeztu dituzten arren (aukeran izan dute bat edo bi abesti) abesti bakarra abestu ahal izango dute finalean, aurkeztutako bi kantuen artean puntuazio altuena lortu duen abestia hain zuzen ere.



Bost gozotegi ezagunetako ordezkariak, tarta erraldoiaren aurrean. HITZA

8.000 lagunetik gora, gozoaren festan

Aisia » Antolatzaileak gustura agertu dira Tolosa Goxuak izan duen erantzunarekin; jende ugari bildu zen larunbatean.

ERREDAKZIOA

8.000 pertsona baino gehiago hurbildu ziren larunbatean, Tolosako San Frantzisko pasealekuan antolatutako Tolosa Goxua-Gozoaren festara.

Tolosako gozogleek, Gorrotxategi, Casa Eceiza, Gorosti, Ibañez-Gozona eta Saizarrekoek tarta erraldoi bat prestatu zuten. Honek sei metroko altuera zuen eta 1,2 metroko zabalera. 12 pisu izan zituen, bizkotxo, esne-gainez eta gorringoz egindako tarta erraldoi honek eta 7.000 zati inguru banatu ziren San Frantzisko pasealekura hurbildu zirenen artean. Aipagarria da puskahauk hartzeko sortu ziren errenkadak. Jendea zain egon zen bere zatia lortu ahal izateko.

Bestalde, Maritxu Astiasaran tolosarrak, sagar-tarta lehiaketa irabazi zuen. Bertara 24 tarta aurkeztu ziren, Tolosa, Tolosaldea, Donostia eta Leioakoak (Bizkaia) izan ziren parte-hartzaileak. Bigarren saria berriz, Lorea Mendizabal, Ibarra koarentzat izan zen. Epai lanetan, gozogle ospetsuak aritu ziren.

Beotibar pilotalekuaren ondoko txurro-dendak 2.015 txurro dohainik banatu zituen goizean zehar jaira joan zirenen artean. Bestalde, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoituzen Elkarteak 50 litro txokolatere bero egin zituen eta 30 kilo pasta banatu zituen. Bertan ateratako dirua, gaixotasun hau dutenei laguntzeko erabiliko dute.

Honenbestez, antolatzaileak gustura agertu dira aurtengo Tolosa Goxua azokak jaso duen erantzunarekin. Goizean goiz hurbildu baitziren lehen bisitariak, eta arratsaldeko lehen orduetan joan azkenekoak. Bestalde, eguraldiak ere lagundu zuen, eta eguzki printza batzuk ateratu zituen.

EHU Arabaren aurka garaile, Bide Bide Ibiza

Saskibaloia » 85-74ko emaitzarekin irabazi zuten Senior Mailako jokalariek; partida gogorra izan zen tolosarrentzat.

ERREDAKZIOA

Sailkapenari begiratuta lider moduan ekin zioten jardunaldiari Bide Bide Ibizako mutilek. Partidarako baja bakarra Dusko Martia izan zen, bere tokia Aza jubetilak bete zuen. Taldeakaste guztian zehar gogor entrenatu ondoren bere bolada onarekin jarrartzeko asmoz kantxaratu ziren.

Aurkaria EHU Araba talde gasteiztarra izan zen, tradizio handi-

ko taldea da saskibalo munduan. Jardunaldiari sailkapeneko bigarren postutik ekin zioten.

Partida kanpotarren zonakako defentsarekin hasi zen. Baina, Ion Izagirrerren lan ikusgarriaren ondoren aurretik joan ziren lehen partzialean. Etxekoen defentsako lan bikain bati esker markagailuan alde handitzea lortu zuten atxendaldira 40-27 iristeko.

Garaipen honek taldeari sailkapeneko lehen postuan jarrartzeko eskubidea ematen dio. Hurrengo astean Iruñera bidaiatuko dute UPNA taldearen aurka jokatzeko. Haritz eta Koldoren baja garrantzitsuak izango dituzte, orain New York-en baitaude klubari bertako metodologia txertatu ahal izateko.

Hirugarren garaipena lortu du Laskorainek

Areto futbola » Tecuni Bilbo taldea zuen aurkari asteburukoan; 3-4ko emaitzarekin gailentzea lortu zuten horitxoek.

ERREDAKZIOA

Berebiziko garrantzidun emaitza eskuratu zuen Laskorainek herenegun, Bilboko San Ignacio kiroldegian jokaturako neurketan. Aurkariak, Zilarrezko Mailan aritzen den Tecuni taldearen filialak ziren. Bizkaitarren esperientzi falta laskorainarren mesedegarri bilakatu zuen. 3-4ko emaitzarekin lortu zuten garaipena horitxoek.

Emaitzaren estutasunak, norgehiagokak izandako nondik norakoarekin talka egiten du, goitik behera eta erabateko gardentasunez nagusitu baitziren Alonsoren mutlik partida osoan zehar. Garaipen erraza izan zela esan daiteke.

Sarerratzek dira hala ere azken batean puntuak pilatzeko bide bakarra eta asko sufritu behar izan zuten ikastolakoek hiru puntuak poltsikoratzeko. Eskuratutako garaipenak, errenkadan erdietsitako hirugarrena zenbatzen du eta goraka begira jartzan ditu ikastolako mutlik. Datorren astean Goierri taldeak bisitatuko du Usabalgo kiroldegia.



Joxepa Otamendik 100 urte

AMEZKETA • Urte eta hilabete gutxian Amezketan bi emakumek mende batek behar dituen urteak bete dituzte. Oraingoan Joxepa Otamendi izan da 100 urteak bete dituen eta Udalak detaile bat eduki nahi izan du berarekin: lore sorta bat eta koadro bat eman zioten. Koadroan Amezketa armarría, Joxeparen jaiotetxearen argazkia eta gaur egun bizi deneko (Arroane) eta bere argazkia daude. Dagoeneko 101 urte beteta dauzkana Joxepa Galartza da. Irudian, Jexus Iñurrita alkatea, Xatur Zabala, Pako eta Lourdes Joxeparen seme-alabak agertzen dira. **HITZA**



Luxuzko ahotsa Leidor Antzokian

TOLOSA • *Mundua Tolosan* zikloaren baitan, Leidor Antzokian Teresa Salgueiro portugaldarra izan zen larunbat gauean Lusitania Ensemble boskotearekin batera: biolinak, txeloa, kontrabaxua, bateria eta perkusioa izan zituen lagun. *La Serena* bere bakarkako lehen lana aurkeztu zuen eta bertan zeuden 400 lagun inguruk gozatu ahal izan zuten eskainitako emanaldiarekin. Fadoak abesten hasi zen Lisboako kaleetan gaztea zela. Horrela hasi, eta gaur egun nazioarte mailakoa da Tolosan larunbatean izan zena: luxuzko gonbidatua, dudarik gabe. **NEKA**

Laburrak

A-15eko istripuan zauritu bat izan da

BERASTEGI • Atzo goizean errepide istripua gertatu zen A-15 autobidean, 07:15ak aldera Berastegi parean. Honen ondorioz, pertsona bat zauritu zen. Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak agertu zuenez, kamioi batek eta auto batek elkar jo zuten, argitu gabe dauden arrazioak tarteko. Zauritua Tolosako Asuncion erietxera eraman zuten. Bide bat itxi behar izan zuten istripuaren ondorioz, Andoainerako noranzkoan, baina arratsaldean dagoeneko normaltasunez gida zitekeen.

Kirol Astea antolatzeko, herritarrentzat bilera, bihar

ANOETA • Anoeta Kirol Astea antolatzeko asmotan dabil Udala. Horregatik herritarrentzat bilera bat antolatu dute biharko. 19:00etan izango da, udaletxean bertan. Honela, herritarren proposamenak eta asmoak ezagutzera emateko bidea emango zaie bertara joaten direnei. Beraz, bilera ireki honetara joateko anoetarrak bihar azaltzea eskertuko luke Udalak, denen artean Kirol Aste erakargarri bat osatzeko.

Eguraldi onak eta 200 dantzari txikiak giroa jarri dute Alegiako Dantzari Txiki Egunean

Alegia • Parte-hartzaileak «gustura» aritu dira; 'Udazkenean Kultura'-ren baitan hilaren 4an, berriz, proiektio bat izango da.

NEREA URBIZU

Herenegun, Alegiako *Udazkenean Kultura* jardunaldietako saskitiki dantza emanaldia atera zuten. Dantzari Txiki Eguna izan zuten eta 200 dantzari inguru batu zituen. Goizean goizetik hasi eta bazkaltzeko ordura arte kaleak alaitzen aritu ziren Irura, Anoeta, Bedaio-Tolosa, Lizartza, Urnieta eta Villabonako dantzariak elkartu ziren. «Herriko plaza nagusia obretan dagoenez ezin izan genuen bertan dantza, baina hala ere, polita atera zen. Baina egia da plazan dantzatzeak beste xarma bat duela».

«Oso pozik» eta «ondo» atera zela diote antolatzaileek (dantzari taldeko guraso taldea). «Eguraldi oso ona egin zuen gainera eta batez ere, Kalebeherako saioa atera zen polita. Aitzakiarik gabeko eguna izan zen».

Hamaiketako pilotalekuan egin behar zuten, baina eguraldi aparta aprobeztatu, kanpoan



Zazpi herrietako dantzari txikiak izan ziren Alegian. Eguraldi onarekin Dantzari Txiki Eguna are dotoreagoa atera zen. **PATXI RENOBALDES**



egin zuten otamena. Gosaria Tolosako Maxi Eroskik lagunduta izan zuten. Horregatik, eskerrak eman nahi izan diete antolatzaileek.

Datorren urtean berriz

Aurtengo emaitza ikusita datorren urtean berriz egiteko asmoa dute antolatzaileek. «Gainera, parte hartu dutenek ere ondo pasa dute eta gustura ibili dira». Dena dela,

«datorren urteari begira, aurtengo gonbidatua ditugunak baina etorri ez direnak etortzea nahiko genuke». Hauen artean, besteak beste, Altxokoak zeuden: ezin izan zuten, haien herrian Jubilatuen Eguna ospatu baitzuten, eta saioa bertan egin zuten». Gonbita berriz egingo zaie, beraz.

Egun «polit» hau hala atera zen Alegiako Udalarri esker, Tolosako

Tolosalde autobusei esker, Maxi Eroskiri esker eta parte hartu zuten guztiei esker». Hauen laguntzarekin saioa «arin eta ondo joan zen».

Bigarren Eskuko Azoka

Gaur zortzi *Udazkenean Kultura*-ren baitan, *Ipar Potosirekin* bat proiektioa izango da (Proclade erakundea). Honekin lotuta, biga-

ren eskuko azoka bat antolatu dute azaroaren 23rako.

Bertan bildutako dirua Bolivako eskola batean (Ipar Potosi) behar duten materiala erosteko erabiliko dute: liburuak, arropa, diskoak edota jostailuak utzi ahal izango dira Kultur Etxean, azaroaren 10era arte. Beraz, lagundu nahi izanez gero, jadanik ari dira hara eramateko materiala biltzen.

E Elkarrizketa

ANA ARRETXE ▶ Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria



L.TERRADILLOS

«Lehiaketa erakusleiu izugarria da gure herria ezagutarazteko»

Kultura ▶ Taiwango eta Kubako abesbatzen parte-hartzea eta Frantziako Mikrokosmos koruaren kontzertu berezia nabarmendu ditu.

INIGO TERRADILLOS

Bihar hasiko da 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, eta azaroaren 2ra arte kantuak hartuko du herria. Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari Ana Arretxe (Tolosa, 1960) aurtengo lehiaketan nabarmentzekoak direnak aipatu ditu. Urtero bezala, «kalitate handiko lehiaketa» hastear da.

Konturatzera 40. era iritsi da Abesbatza Lehiaketa.

Garapen izugarria izan du. Oso lehiaketa txiki bezala hasi zen, eta une honetan, munduko abesbatza lehiaketa onenatarikoa dela esan daiteke. Oso txikia zen proiektu batetik gaur egun bilakatu dena arte iristeko lan handia egin da. Badirudi, agian, egun hauetan soilik egiten dela lan, baina jendea urte osoan zehar ari da, abesbatzekin harremanetan jartzen, partiturak bidali, bajak baldin badaude horiek bete... Mila gauza daude egiteko. Beste berrogei urtetan, gutxienez, horrela jarraitzea da gure nahia eta asmoa.

Zure eginkizuna aldatu da urte hauetan.

Orain, Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari bezala, epaimahairekin egoten naiz, partiturak banatzen, puntuazioak jasotzen, bileak egiten... Ordezkaritza lana ere egin behar dut, izan ere, beste lurraldeetako enbaxadoreak eta izaten dira; aurtun, esaterako, Abesbatzen Munduko Erakunde ordezkarria dator, eta baita, Hegoafrika eta Letoniako enbaxadoreak ere. Beste edizioetan laguntzaile lana egitea gonbidatuekin ere egokitu izan zait.

Aurtengo lehiaketan zer nabarmenduko zenuke?

Taiwango Taipeiiko Formosa Singers abesbatzaren parte-hartzea aipatuko nuke. Lehendabiziko aldia da bertako abesbatza bat duguna. Asiako koruak exotikoak dira oso, eta haien folklorea berezia izan ohi da, beraz, ikutu berezia jarriko diote lehiaketari. Aipatzekoa da, baita ere, Kubako Exaudi abesbatzaren parte-hartzea, aspaldiko

koru ezaguna baita gurean. 1992. urtean izan ziren Abesbatza Lehiaketan, eta lehenengo postua lortu zuten folklorea, eta hirugarrena polifoniar. Egitarauaren baitan, *Juramento* abestu zuten, eta izugarri gustatu zitzaigun, eta ordutik Gipuzkoako hainbat abesbatzak sartzen dute euren egitarauan.

Berezia izango da baita ere Mikrokosmos-en kontzertua.

Oso kontzertu berezia izango da. Aurtengorako gonbidatu dugun

«Jendeak urte osoan zehar egiten du lan Abesbatza Lehiaketa behar bezala irteeteko»

Frantziako koru honek 2006an hartu zuen parte lehiaketan, eta polifoniar bigarren postuan geratu ziren, eta folklorea hirugarren. Polifoniar lehen postua lortu zuten berez, baina deskalifikatuak izan ziren ez zutelako partidadeen kopurua bete. Pena bat izan zen. Filmen soinubandak egokitzen dituzte, eta eurek konposatutako piezak ere abestuko dituzte. Oso ikuskizun polita da, eta abesbatzen

musika astuna-edo egiten zaionarentzat errazagoa dela esan daiteke.

Maila handiko koruak entzuteko aukera izango da aurtun ere.

Gu beti saiatzen gara kalitatezko koruak ekartzen. Hanka sartu dezakegu, baina gure helburua kalitate handiko koruak lehiatzea izaten da. Horretaz gain, eskola desberdinetako abesbatzak ekartzea bilatzen dugu. Aurtengoari dagokionez, aipatzekoa da Euskal Herriko bi talde izango ditugula. Bata Leioako Leioa Kantika Korala haur abesbatza, eta bestea, Donostiako Kup Taldea ahots nahasiak sailekoa, biak ere maila handikoak. **Nola osatzen duzue parte-hartzaileen zerrenda?**

Lan zaila izaten da. Zerrenda orekatu egiten saiatzen gara. Esaterako, ahots taldeetan sei talde ekartzen, eta haur abesbatzetan beste sei. Aurtun haur abesbatzetan bost abesbatza izango dira azkenean, azken orduko baja baten gatik. Normalean, urtean zehar lehiaketetara eta emanaldietara joaten gara koruak ikustera, eta horren arabera aukeraten dugu. Konfiantzazko jendearen aholkuak ere jarraitzen ditugu, talde bat edo beste aukeratzera.

Eta hauek guztiak epaimahai zorrotz batek epaituak.

Epaimahaiko kide guztiak euren koruekin hartu izan dute parte lehiaketan. Zuzendari oso onak dira, eta gehienak musika irakasleak. Estatu Batuetako Brady Allred eta Errusiako Victor Smirnov lehen aldiz ariko dira epaile moduan; Allreden kasuan, 2006an bere koruak lortu zuen sari nagusia. Besteak, Naomi Faran israel-darra, Georg Grun alemaniarra, Mats Nilsson sueziarra eta Wilma

«Lehiaketarako koruak aukeratzeta lan zaila da; zerrenda orekatua osatzen saiatzen gara»

«Abesbatzekin eta txotxongiloekin lan handiena izaten dugun unea izaten da hau»

ten Wolde holandarra, egonak dira. Xabier Sarasola aurtun epaimahai burua izango da.

Zer sentitzen duzu Abesbatza Lehiaketa hastear den honetan?

Uda igaro eta gero *udazken beroa* hasten da guretzat, hau da, Tolosako Ekinbide Etxearentzat. Orain lehiaketa hasiko da, eta hemendik hilabete atera txotxongiloen txanda izango da. Lan gehiena piltzen den unea izaten da, eta era berean, denbora askoan egin duzun lanaren emaitza ikusteko unea ere bada. Urduritasuna eta tentsioa sentitzen duzu, ea guztia ondo irtingo den, eta era berean, poza ere bai.

Tolosarentzat zer esanahi du Abesbatza Lehiaketak?

Erakusleiu izugarria da. Gutxienez 1.000 pertsona igarotzen dira urtero Tolosatik, eta gure herria ezagutzeaz gain, gure kultura eta gure abestiak ezagutzen dituzte. Gero hemen bizitako esperientzia euren herrialdeetan kontatzen dute, eta horrela gure herriaren izena zabaldu egiten da. Gainera, lurralde askotako enbaxadoreak etortzen dira, beraz, euren lurretan badute Tolosaren berri, eta badakite Abesbatza Lehiaketa egiten dela. Hori oso garrantzitsua da. Ni oso harro sentiaritzen nau Tolosa abesbatzengatik eta txotxongilongatik ezaguna izateak.

Abesbatza Lehiaketaren atarian gauden honetan, zer esango zenuke tolosarrei?

Guztiak gonbidatuko nituzke lehiaketako saioetara joan daitezkeen. Egia esan, lehiaketako saioetara jende ugari joaten da beti, baina gero, urtean zehar abesbatzen emanaldiak antolatzen direnean ez dute hain harrera beroa izaten. Nik horietara ere animatu nahiko nituzke. Bestalde, norbait era batera edo bestera laguntzeko prest badago, arazorik gabe gugana gerturatzeko esango nuke, beti izaten baitugu laguntzaren premia.

E Elkarrizketa

ROSARITO ZEBERIO › Antolatzailer ohia eta zaletua

Tolosa » Antolatzailer lanetan III. edizioan hasi zen Rosarito Zeberio; hara eta hona ibiltzen zen koruen atzetik, Tolosara ekartzeko helburuarekin.

NEREA URBIZU/ASIER IMAZ

Plater bakarraren legea jarri zuten egun berean jaio zen Rosarito Zeberio (Tolosa, 1936). Txikitatik koro zaletasuna barnean izan du eta Tolosako Abesbatza Lehiaketaren antolatzailer lanetan 32 urte ibili da. Azken urteetan, koruak non, bera han; hori bai, entzule modura.

Antolatzailer lanetan jardun zinean, zein zen zure betebeharra?
Batez ere beste herrialdeetako lehiaketak entzutera joaten ginen. Koruak entzuten genituen eta komeni baldin bazen, eurekin hitz egiten genuen; hona etortzeko gonbidatzen genituen, hemengo lehiaketa nolakoa zen azaldu...

Lehiaketaren aitzinetik gainera.
Uste dut 3.ean sartu nintzela. Haserako bi urte haietan, Euskal Herriko koruak etorri ziren. Gero kataluniarrekin harreman oso onak eduki genituen. Gure aldetik, lehiaketa ireki beharra zegoela ikusten genuen, munduan gure musika zabaldu behar genuela.

Antolatzailer lanetan ibiltzeaz gain, koruetan abesten ibili al zara?

Ez. Ez naute admititu. Ez daukat ahots onik. Baina zaletasun izugarria diet, koruak izugarri gustatzen zaizkit eta txiki-txikitatik gainera. Eskolan sartu ziguten har hori, asko abesten zen gure eskolan: musika klaseak, korua...

Gaur gauzak ez direla horrela.

Beste era batera doaz gauzak. Urte asko egon dira ezer gabe, baina orain badira berriro ere koruak. Tolosan bertan, Ikastolako haurren korua oso polita da, oso ondo abesten dute.

40 urtetan koruak asko aldatuko ziren, ezta?

Oso ezberdina da. Lehen Euskal Herrian adibidez koro asko zeuden, baina oraingoek maila asko hobetu dute. Lehen onak bi edo hiru zeuden; Iruñeko Kamarako Korala oso famatua zen. Gipuzkoan ere bazeuden baina orain bezain onik ez. Bestalde, gaur egun abesten dituzten partitura eta programak ez zituzten abesten inondikan ere, ezta pentsatu ere. Euskal folkloreaki dagokionez, lehen gehiago erabiltzen zuten.

Lehiaketak, azken urteetan, herriartarrekiko lotura galdu duela egia al da?

Ez dut uste. Nire iritziz orain jende gehiago joaten da koruak entzute-ra. Gogoratzen naiz, urte batzutan zehar, nola Leidor erdia baino

«Gure musika munduan zehar zabaldu dela jakitea izugarria da»

gehiago hutsik egoten zen. Urteetan egin genuen lan, horri buelta emateko, asko kostatu zitzaigun.

Zure ustez beraz, jendearen artean zaletasuna areagotu egin da?

Bai. Nire ustez, jendeak gainera lehen baino gehiago ulertzen du orain. Badaki zer den koro on bat eta zer ez den. Emanaldiaren amaieran txalo egin behar duzu, edukazioz, baina alde izugarria dago txalo horiek entzutean, eta

«Koruak izugarri gustatzen zaizkit, eta txiki txikitatik sartu zitzaidan har hori»

«Jendeak lehen baino gehiago ulertzen du; badaki zer den koro on bat eta zer ez den»

«Kanpora joatean, Tolosako Abesbatza Lehiaketak duen oihartzunarekin harrituta gelditzen nintzen»

zergatik ari diren txaloka jakitean. Hor konturatzen zara jendea entzumenaz hezitzen joan dela, kriterio izugarria duela eta badakiela obrak interpretatzen.

Zinemaldira adibidez, Donostia inguruko haurrak joaten omen dira eskoletatik. Tolosan horrelakorik ez omen da gertatzen?

Oso desberdina da. Zinearen kasuan, haurrek aurretik telebista daukate eta ez daukazu inongo problemarik haur bat zinera eramateko; koruak entzutera eramateko aldi bai. Ez daude ohituta horrelako musika entzutera, heziketa kontu bat dela iruditzen zait.

Baina hori alda daiteke.

Bai. Baina eskoletako lana dela iruditzen zait, ez familietakoa. Haurrak kontzertu batetara eramatea ez dago gaizki, ohitu egiten dira. Hala eta guztiz ere, Haurren Lehiaketan, Tolosan Leidor beteta egoten da. Eta oso zintzo portatzen dira gainera.

Euskal Herriak kantatzeko duen zaletasunetik sortu al zen Abesbatza Lehiaketa?

Iruñetik Kamarako Korala ospetsua etorri zen kontzertu bat ematera Tolosara. Kontzertu ondorengo afari hartan, tolosar batzuk lehiaketa bat antolatu behar zela erabaki zuten.

Nazioartean ospe handia duen Abesbatza Lehiaketa omen da Tolosakoa.

Hemengo Lehiaketak zuen oihartzunarekin oso arrituta gelditzen nintzen kanpora joaten ginean: Frantzia, Italia, ... Hori izugarria da.



ASIER IMAZ

Guk geuk, barruan geundenok, ez genuen pentsatzen kanpoan zuen garrantzia, oso baino oso ezaguna da Tolosa koruen aldetik.

Pertsonalki, zer da zuretzako Tolosan urtero burutzen den koruen topagune hau?

Hona kanpotik koro asko etorri dira urtero: filipinarrak, Estatu Batuetakoak, ... Hemen lehiaketa azarotik hasieran egiten da eta gero Eguerriak datoz. Koro horiek beti

ematen dute Eguberrietan kontzerturen bat eta hemen ikasitako euskal abestiak bere kontzertuetan, bere herrietan, eman izan dituzte. Baita kartaz programa bidali ere, hemen kantatutako abesti euskaldunak sartu dituztela esanaz. Gure musika munduan zehar zabaldu dela jakiteak, eta euskaraz, ez latinez, hori... hori niretzat izugarritzako saria da. Italian eta Frantzia hasi ziren bertako fol-

klorea lantzen baina desagertu egin ziren. Epaila bezala etorri zen kataluniar batek, behin honela esan zidan: «Ez galdu Tolosan zuen folklorea, ez utzi zapaltzen inorengatik». Gure helburua beti izan da horri eustea eta horrekin jarraitzea, eta gaur ere horrela da, Lehiaketan euskal abesti bat kantatu behar izaten dute koro guztiek. Hau dena, oso-oso garrantzitsua da.

E **Elkarrizketa**

BORJA GOIKOETXEA › Abesbatza Lehiaketako kartel iragarlearen egilea

Kultura » Aurten Borja Goikoetxearen kartela aukeratu dute Tolosako Nazioarteko 40. Abesbatzen Lehiaketa iragartzeko; karteiko protagonista kortxea txuri bat da.

NEREA URBIZU

Ez du Tolosako Abesbatzen Lehiaketa ezagutzeko plazerra, baina aurten, honen berri emateko irudirik adierazgarriena egitea lortu du. Borja Goikoetxeak (Hondarribia, 1985) kortxea aukeratu du Tolosako 40. Abesbatzen Lehiaketa aurkezteko eta honen berri emateko figuratzen. Kartel bat egiteagatik lortzen duen lehen saria da, eta horregatik harro eta pozik dago gaztea.

Zertan oinarritu zara kartela egiterako garaian?

Kortxea orokorrean musika islatzeko elementu oso adierazgarria da. Forma aldetik nahiko antzinekoa da, primitibista edo. Honekin musikaren eta kantuaren antzintasuna ere islatu nahi izan dut. Aldi berean, euskal eskultura garaikideari erreparatu nahi izan diot (Txillida, Oteiza...). Kolore beltza pentagramaz beteta dago eta kortxea eusten ariko lirarekin.

Eta forma aldetik?

Zertxobait estuagoa da, luzeagoa: estetika kontua izan da, besterik gabe. Normalean baino luzexagoa da, Din A4 bat baino estuagoa, alegia.

Koloreekin zer adierazi nahi izan duzu?


Beltzaren eta txuriaren artekoa da, nota urrutitik ikusi zedin, kontrastea bilatu nahi nuen. Musikarekin lotutako kartel bat nahi nuen; musikarekiko interesa zuenak urrutitik ikus zezan musikarekin zerikusia zuela kartelak. Azken batean hori da kartel batek islatu behar duena. Txuriak eta beltzak ahotsen arteko kontrastea islatzen dute, eta parte hartu behar duten talde ezberdinak ere bai. Letrak gorritz daude: Tolosarekin lotzen duen kolorea da, gastronomiarekin lotuta, hain zuzen.

Oso gaztea zara. Aurkezten duzun lehen kartela da?

Ez. Beste lehiaketatan ere parte hartu izan dut, herrian eta Kunsthal eskolakoetan ere bai (publizitate grafikabertan ikasi dut). Baina orainago zortea izan dut: beti saiatu egin beharra da...

Orain irabazi duzun sari honek zertarako balioko dizu?

Lezon nago enpresa garrantzitsu batean lanean eta ikasitakoarekin badu lotura bat, komunikazio eta publizitate arduraduna naiz. Ateak ez dakit irekiko dizkidan sari honek baina Curriculumerako asko balio dute halako gauzek. Gainera, beste lehiaketa batzuetan



KLSK

«Abesbatzen Lehiaketak duen finkotasuna islatu nahi nuen kartelarekin»

parte hartzeko animatu egin nau. Ez bakarrik diseinukoak, baita argazkilaritzarekin lotutakoak, logotipoekin lotutakoak... Denetik pixka bat jorratuko nuke lehiaketatan ere.

Ezagutzen al duzu Tolosako Abesbatzetako Lehiaketa?

Ezagutu bai baina egia esan behar bada, ez naiz inoiz egon. Kartela aurkeztu zuten egunean bertan izan nintzen eta Hodeiertzen saioa ikusteko eta entzuteko aukera izan nuen. Emanaldia gustatu zitzaidan. Han zegoen nire kartela, eta hori ere gustatu zitzaidan, kartela han ikustea, hain zuzen.

Aurreko urteetan aurkeztu dituzten kartelak ezagutzen dituzu?

Azken bi urteetakoak ezagutzen ditut. Aurten Kunsthal eskolako

ikasleek parte hartu dugu. Beraz, ikasleekin artean lehiatu naiz, denak ezagunak ginen. Proposamena egin ziguten eta animatu egin nintzen.

Aurten 40. urtez ospatzen da Abesbatzen lehiaketa. Zerbaki horrek garrantzia izan du zuk egindako kartelean?

Zerbaki borobila da eta guk garrantzi are gehiago ematen diogu. Kartelean ere erraz ikusten da 40. edizioa dela eta hori bilatzen nuen ere: erraz ikus zedin. Lehiaketa honen oinarriak bezain sendo eta biribila nahi nuen izatea kartela. Jada 40 urte ditu, eta denbora asko da: garrantzia dauka eta nazioartekoa gainera. Horregatik harro nago, honen parte izatera iritsi naitzelako, alegia.

Espero al zenuen irabaztea?

Beti baikorra izan naiz baina orain arte ez dut zorte handiegirik izan. Sorpresa izan zen esan zidatenean, eta oso pozik nago irabazteagatik. Lau proposamen aurkeztu nituen, formato berdintsuarekin baina aldi berean haien artean oso diferentziak izanik: anitzak ziren. Epaimahaiak azkenean hau aukeratu zuten, kortxearena. Nahi adina kartel aurkez zitekeen, baina modu batera poltsikoak baldintzatzen du: inprimatu ditzakezun kopuruaren arabera da! [barreak].

Hala ere lau asko da...

Sormenak ere zerikusia du, noski. Motibatuta egonez gero baliteke gauza gehiago bururatzea. Gero onak izatea edo ez, beste kontu bat da.

Zenbat denbora izan duzue lan hauek prestatzeko, ontzeko eta aurkezteko?

Duela bi hilabete inguru esan ziguten, orduan irekiko zen lanak aurkezteko epea.

Nahikoa denbora al da?

Nire ustez ideiarik onena hasieran etor daiteke burura, bost minututan. Gero bai, errematatzenko bi hilabete osorik behar izan ditut. Horrez gain, geuk egindako lanari beti akatsak atera nahi dizkiogunez, azkenean ez dakizu behin betikoa.

Beltzarekin eta txuriarekin kontrastea bilatu nahi nuen, ahotsen arteko kontrastea bezala**Nire kartela aukeratu zutela esan zidatenean sorpresa izan zen; oso pozik nago****Tolosara etorri nahi nuke aurten, abesbatzen lehiaketa nolako den hurbiletik ikusteko**

akbenetan balioko duen ala ez, edo gustukoa izango den ala ez. Egilearentzat, burutu duen kartel batek ematen du inoiz ez dagoela bukatuta. Nork daki? Agian hemendik 10 urtera kartel hau ikusi eta esango dut: «Zein kartel itxusia, edo pobrea!» eta dena aldatuko zenioke orduan. Hori askotan gertatzen da. **Sariarekin zer egingo duzun pentatsatu al duzu?**

Txakur bat daukat, autoa ere bai... Kapritxoetarako behintzat ez da izango, badut zertan gastatu edo erabili...

Datorren urtean berriz aurkeztuko bazina oso diferentea izango litzateke kartela?

Ezingo dut berriz kartelak aurkeztu, baina posible izango balitz, aurreko urtekoa guztiz ahaztu egingo nukeela uste dut, ez luke zerikusirik izango. Aurtengoa oso sinplea eta nolabait esateko, inpaktantea izan da kartela (hala nahi nuen), baina agian datorren urtean kolorez beteta dago, formaz eta kurbaz ere bai, nork daki? Gainera, ezin denez jakin zer gustatuko zaion epaimahaiari, ez da jakiten nondik jo. Aurten harririk zuen zer bait egin nahi nuen, zeren, kartela bestela, ez da polita esateko; jendeak kartela ikusi eta berehala Tolosako Abesbatzekin lotzea nahi nuen. Askotan kartelak ikusi eta kosta egiten da zer adierazi edo esan nahi duen.

Bukatzeke, musikaria al zara zu?

Ez. Askok gustatzen zait baina ez naiz musikaria. Tolosara hurbiltzea nahi nuke aurten, egunen batean bada ere, abesbatzen lehiaketa nolako den ikusteko, ezagutzeko eta abar. Hodeiertz ikusi nuenean, egia esan, asko gustatu zitzaidan.

Ezagut ezazu zure alderik freskoena



Teibitan ezagutu nuen nire alderik freskoena,
babarrun-ale lehor batetik justoin eler bezia sortu zela ibusi nuenean.
Biziak eta naturalak aurrera egiten duten gure harridura eta gozamenerako.
Eta orain, horrenbeste urte pasa direnean, zurrara bera sentitzen dut, baina
Udal Merkatuan oraingoan. Besten inguru natural batera bainaramate bolorek,
usainek, tratu atseginak eta kalitatezko produktuek.
96 100 naturalak eta oso, oso freskoak direlako.

Eros ezazu zure **Udal**
Merkatua



ENSEMBLE VOCAL ● Hamburgo (Alemania). 18 emakume eta 17 gizon osatua, Cornelius Trantowren gidaritzapean. Larunbatean ariko dira Leidorren polifonia eta folklorea kantatzen.

CORO DE LA ACADEMIA DE MUSICA Y TEATRO ● Estoniarrak. Zuzendaria, Toomas Kapten. 17 emakume eta 17 gizon, ahots nahasiak. Leidorren bihar ariko dira polifonia eta folklorea eskaintzen.



KUP ● Donostiako ahots nahasiak osatutako abesbatza. Gabriel Baltes da zuzendaria eta 16 emakume eta 14 gizon osatua da. Larunbatean ariko dira Leidorren, polifonia eta folklorea sailetan.

AUDITE CHAMBER CHOIR ● Finlandiarrak. 18 emakume eta 17 gizon dira abesbatzako kideak, Jani Sivenen gidaritzapean. Bihar 19:30ean Leidorren ariko dira polifonia eta folklorea kantatzen.



LEHIAKETAREN 'DO, RE, MI'-A

» EGITARAUA

Urriak 29, bihar

■ Leidor Antzokian, 19:30ean.

-Polifonia: Tallingo Kontserbatorioko Korua (Estonia). Singkronies (Hegoafrika) eta Audite Chamber Choir (Finlandia).

-Folklorea: Tallingo Kontserbatorioko Korua (Estonia). Singkronies (Hegoafrika) eta Audite Chamber Choir (Finlandia).

Urriak 30, etzi

■ Leidor Antzokian, 19:30ean.

-Polifonia: Chantage (Ingalaterra), Formosa Singers (Taiwan)

eta Cantemus Mixed Choir (Hungaria).
-Folklorea: Chantage (Ingalaterra), Formosa Singers (Taiwan) eta Cantemus Mixed Choir (Hungaria).

Urriak 31, ostirala

■ Santa Klara elizan, 16:00etan.

-Musika Sakratua: Gentlemen Singers (Txekiar Errepublika), Magdalena Vocal Ensemble (Errusia), Adur (Norvegia), Cantemus Vocal Group (Hungaria), Antioch (Ipar Amerikar Estatu Batuak) eta Exaudi (Kuba).

■ Leidorren, 20:00etan.

-Musika profanoa: Gentlemen Singers (Txekiar Errepublika), Magdalena Vocal Ensemble (Errusia), Adur (Norvegia), Cantemus Vocal Group (Hungaria), Antioch (Ipar Amerikar Estatu Batuak) eta Exaudi (Kuba).

Azaroak 1, larunbata

■ Leidor Antzokian, 11:00etan.

-Haur Abesbatzak: Motyl Sumperk (Txekiar Errepublika), Amics de la Unio (Herrialde Katalanak), Leioa Kantika Korala (Euskal Herria), V'dochdovenije

(Errusia) eta Prague Philharmonic Choir (Txekiar Errepublika).

■ Leidor Antzokian, 16:00etan.

-Polifonia: Ensemble Vocal Hamburg (Alemania), Kup Taldea (Euskal Herria) eta Kamer Koris (Letonia).

-Folklorea: Ensemble Vocal Hamburg (Alemania), Kup Taldea (Euskal Herria) eta Kamer Koris (Letonia).

■ Leidor Antzokian, 20:00etan.

-Kontzertu berezia: Mikrokosmos (Frantzia).

■ 22:00etan. Tolosako Udalaren eskutik Harrera Ofiziala abesbatza zuzendarietara eta 40. Abesbatza

Lehiaketan dauden pertsonaia guztiak.

■ Beotibar pilotalekuan, 23:00etatik 02:00etara.

Abesbatza Dantzaldia. Bertan, Epaimahaiaren erabakia jakitera emango dute.

Azaroak 2, igandea

■ Leidor Antzokian, 11:00etan.

-Lehiaketako Amaierako Saioa eta Sari banaketa. Ekitaldia *Agur Jaunak* abestuz bukatuko da.

■ Udal Ferialekuan, 14:30ean.

Abesbatza Bazkaria.

■ San Frantzisko Elizan, 19:00etan.

Abesbatza saioa.



CANTEMUS MIXED CHOIR ● Hungariarrak. Soma Szabo da zuzendaria eta 18 emakume eta 18 gizon osatzen dute abesbatzaha. Entzuteko aukera, etzi Leidorren eta ostiralean Santa Klaran eta Leidor Antzokian.

SINGKRONIES CHAMER CHOIR ● Preto-riakoak. Johann van der Sandt zuzendaria da. 17 emakume eta 18 gizon ariko dira kantuan van der Sandten zuzendaritzapean. Bihar ariko dira Leidorren, polifonia eta folklorea jorratuz.



YOUTH CHOIR KAMER ● Letonia. Maris Sirmas zuzendaria da eta 22 emakume eta 22 gizon osatutakoa da. Larunbatean ariko dira Leidorren.

CHANTAGE ● Londreskoak. James Davey-ek 19 emakume eta 19 gizon osatutako koroa zuzenduko du. Entzuteko aukera, etzi Leidor antzokian, 19:30etik aurrera, bai polifoniar, bai folklorea.





FORMOSA SINGERS • Taiwandarrak. Julian Ching-Chun Su zuzendaria da eta 18 emakume eta 14 gizon zuzenduko ditu bihar Leidorren. Polifonia eta folklorea jorratuko dituzte.



MAGDALENA VOCAL ENSEMBLE • Errusia. Stonislav Egorov da zuzendaria eta 5 emakumek eta 4 gizonek osatua da. Ostiralean ariko dira.



EXAUDI • Kuba. Maria Felicia Perezek zuzentzen du abesbatza hau. 6 emakumek eta 6 gizonek osatua da. Ostiralean ariko dira Santa Klaran eta Leidorren.



THE ANTIOCH CHAMBER ENSEMBLE • New York-ekoak. Zuzendaria Joshua Copeland da eta 6 emakumek eta 6 gizonek osatzen dute koroa. Ostiralean Santa Klaran eta Leidorren ariko dira.



ADUR VOCAL ENSEMBLE • Norvegiarrak dira. Kjetil Almanning da zuzendaria eta 8 emakumek eta 8 gizonek kantatzen dute abesbatza honetan. Hauek entzuteko aukera ostiralean izango da Santa Klaran eta Leidor antzokian, iluntzean.



GENTLEMEN SINGERS • Txekiarrrak dira. Richard Uhlir da zuzendaria eta 9 gizonek osatua da. Aurten parte hartuko dutenen artean, gizonek bakarrik osatua den koro bakarria izango da honakoa. Santa Klara elizan eta Leidorren ariko dira, biak ere ostiralean, lehenengoan.



CORAMICS DELA UNIO • Kataluniarrak. Josep Vila Jover da zuzendaria eta haur abesbatza 32 neskek eta 7 mutilek osatua da. Leidorren ariko dira larunbatean, 11:00etatik aurrera.



PRAGUE PHILHARMONIC CHILDREN'S CHOIR • Txekiarrrak. 55 neskek abestuko dute Leidorren, Jiri Chvalaren zuzendaritzapean. Haur abesbatza hau entzuteko aukera larunbatean izango da.



LEIOA KANTIKA KORALA • Leioakoak. Basilio Astulez da zuzendaria eta 40 neska dira bertako partaideak. Bost kantu eskainiko dituzte larunbatean Leidorren.



MOTYL SUMPER • Txekiarrrak. Tomas Motyl eta Helena Stojanikova dira zuzendariak eta 40 neskek osatuko haur abesbatza handia zuzenduko dute, Leidorren larunbatean, 11:00etatik aurrera.



VDOKHNOVENIJE • Errusia. Olga Skvortsovaren zuzendaritzapean 34 neska eta 6 mutil ariko dira. Haur abesbatza honek 6 lan prestatu ditu Leidorren abesteko (larunbatean).



MIKROKOSMOS • Kontzertu berezia eskainiko dute eta lehiaketatik kanpo ariko dira. Frantziarrak dira eta hauek ikusteko aukera Leidorren izango da larunbatean 20:00etan.



Tomas Ugaldebere, Jon Kortazar, Txelo Romeo eta Fernando Garcia Murga aurkezpeneko une batean. R.CALVO

Axun Aierberen «jakin-minaren fruitua» biltzen duen liburua aurkeztu dute

Ibarra » Axun Aierberen (Altzo, 1968-Donostia, 2008) 'Itzulpengintza-estrategiak' izeneko liburua aurkeztu berri dute.

REBEKA CALVO

Itzulpengintza-estrategiak liburua akademikoa da oso. Ez dairakurle-go orokorrari zuzendutako lana, baina egileak, orain gutxi zendutako Axun Aierbek, merezi du pasa den ostiralean Ibarako Kultur Etxean eginiko aurkezpena. Aretoa jendez lepo zegoen; lagunak, senitartekoak, ezagunak, lankideak, idazleak...

Ekitaldi hunkigarria izan zen, non Aierbek euskararekiko zuen maitasuna utzi zuten agerian. Ibartarraren «mezulari» lanak Jon Kortazarrek egin zituen. Kortazar irakasle eta idazlea da eta Aierberen laguna. Aspaldi hasita-

ko lanaren emaitza da *Itzulpengintza-Estrategiak*.

Kortazarrek proiektua batera egin zutela argitu zuen eta «urtean behin Axunek kapitulu» bat ematen ziola ere argitu zuen. «Liburua bere jakin-minaren fruitua da», gaineratu zuen. «Liburuan agertzen dena Axunek pozik egiten zuten lanaren emaitza da. Zoritxarrez ez dago gurekin, baina bizitzak aurrera jarraitzen du eta seguru Axuni asko gustatuko litzaioke la liburu honen argitaratzea», azaldu zuen idazleak.

Aurkezpenean, Kortazarrekin batera, Fernando Garcia Murga ere egon zen, Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultateko dekanoa, hain zuten. Ibarako alkatea ere, Txelo Romeo, han zen. Garcia Murgak «Axun gogora ekartzean hitzez inguratuta ikusten» duela argitu zuen. Aierberen ikasleak ere ekarri zituen gogora dekanok: «Bere ikasleek ezagutu

zuten Axunen zorroztasuna. Prestakuntza maila altua lortu zuten bere lanari esker eta bizitzeko eredu batekin ere egin zuten topo». «Hitzek ez dute Axun ahaztu, liburuan bildu dira», esan zuen.

Txelo Romeok, bere aldetik, Aierbek utzitako ondarea azpimarratu zuen eta baita Emeterio Arrese Literatur Lehiaketa sortzeko egindako lana ere.

Hiru atal nagusi

Liburuan hiru atal dira nagusi: Anjel Lertxundiren *Otto Pette* eta Argizariaren *egunak* eleberrien itzulpenen azterketari eskainitakoa, *Harkaitz Canoren autoitzulpengintza-estrategiak* bezala bataiatutakoa eta Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean* gaztelarara itzultzeko erabilitako metodoen inguruko azterketa egiten duena. Honekin guztiarekin batera Aierberri eskainitako idatziak ere irakur daitezke.

Ibarrak garaipena lortu du Soloarteren kontra

Areto-futbola » 0-3 gailendu ziren Ibarakoak igandean; jokalaria gazteenen erdia bakarrik jokatu ahal izan zen.

ERREDAKZIOA

Basauriko taldea, Soloarte, nahiko lasai zelairatu zen igandean. Etxean jokatu behar zuten partidua eta Ibarakoak, gainera, baja ugari zituzten; Unai Labaca, Ion Ander Karrera, Igor Zabalo eta Cristian Davilarenak. Hau dela eta, ibartarrak jokalariek gazteenekin egin behar izan zieten aurre Basaurikoek, Joseba Balerdi atezainaren eta Ai-

tzol Oyarbideren lana azpimarratu behar delarik zentzu honetan. Zelairatu ziren lehen bostak Joseba Balerdi, Aritz Otaegi, David Prados, Aitzol Oyarbide eta Jon Garmendia izan ziren. Loitunz Sanzek, Ruben Etxartek eta Victor Silvak ere jokatu zuten.

Partida bi ekipoen jokaldi onekin hasi zen, biotako edozeinek irabazi ahal zuten partida, baina bigarren zatian Txubel entrenatzaileak estrategia aldatzea erabaki zuen eta Ibarakoek lehen gola sartu ahal izan zuten partidaren jorera zehaztuz. Partidaren hiru golak Ibararenak izan ziren, hortaz, Loitunz Sanzek bat sartu zuen eta Ruben Etxartek beste biak.

Gurasoei zuzendutako ikastaroa antolatu dute

Ibarra » 10 ordu irauten ditu tailerrak eta, besteak beste, gurasoek seme-alabekin dituzten gatazkak hobeto ulertzea du xede.

ERREDAKZIOA

Ibarako Udalak, Uzturpe ikastolaren laguntzarekin, gurasoei zuzendutako *Elkarrizketarako eta gatazkak konpontzeko trebetasun-*

nak familiarentzat ikastaroa antolatu du. Bertan, seme-alabekin sortzen diren gatazkak hobeto ulertzeko, gatazkak konpontzeko, komunikatzeko trebetasun egokiak garatzeko, emozioak kudeatzeko ikasteko eta haurrekin negoziaketak lantzeko moduak izango dituzte hizpide. Ikastaroak 15 euro balio ditu eta Kultur Etxean izango dira azaroaren 3, 10, 17, 24 eta abenduaren 1ean. Izena Udala Gizarte Zerbitzuan eman behar da goizetan.

Laburrak

Abian dira jada Kulturarteko Topaketak

IBARRA » Atzo hasi ziren Jatorkin Elkarteak Palestinari eskainitako Kulturarteko Topaketak. Yon Cazenaveren argazki erakusketarekin hasi zen *Herrien Astea*. Bihar, al diz, Lidon Sorianoaren *Palestina: garbiketa etnikoa 60 urtez* izeneko hitzaldia entzun ahal izango da 19:00etan Kultur Etxean.

Jaien balorazioa egiteko bilera egingo dute bihar

IBARRA » Ibarako Udala Kultura eta Gazteria Batzordeak azaldu duenez, Festa Batzordeak bilera egingo du bihar, hilak 29, 20:00etan Udaleko Pleno Aretoan, San Bartolome jaien balorazioa egiteko. Ibarako Udalak bilkuran parte hartzea animatu eta gonbidatu nahi ditu herritar guztiak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Ziza eta onddoak ikusgai menditik Karrapera jaitsi ondoren

Leitza » Altzadi Kultur Elkarteak antolatutako 'Mikologialdia' herenegun amaitu zen eta antolatzaileak baikor.

ASIER IMAZ

Iragan igandean amaitu zen *Mikologialdia*. Antolatzaileak, Altzadi Leitzako Kultur Elkarteak kideak, balantze baikorra egin zuten atzokoan. Izan ere, «urte luzez antolatu gabe egon ondoren, nahikoa jende ibili da» ziza eta onddoen inguruan azken egun hauetan. Gauzak horrela, aurrera begira jarri dira Altzadiko kideak, «aurtengo ekitaldi xumea» nola landu daitekeen aztertzeko, beti ere hurrengo urtean eskaintza gehiago aurkezteko asmoz. «Aurten aspaldiko partez lehendabiziko urtea izan da berriro ere. Hurrengo urtera begira hitzaldiak antolatu nahiko genituzke adituren batekin, degusta-

zioa ere buruan daukagu, argazki lehiaketaren bat, finean, ekitaldi berriak gehitu».

Kezka bazuten hasieran, ziza eta onddoetarako ez baita aurten goa urte egokia oraingoz. Hala eta guztiz ere, «jende ugari joan da mendira eta azkenean 93 espezie ezberdin sailkatzea lortu dugu».

Haurrak ere protagonista

Aldebatetik marrazkiak egiten aritu dira herriko haurrak *Mikologialdia*-k irauten duen bitartean. Larunbatean, Mendi Taldearekin batera, mendira joan ziren marraztutako ziza eta onddoak aurkitzera. Arratsaldean sailkapenean lagundu zuten eta igandean euren marrazkiak erakutsi zizkien helduagoi. Hauek espezie ezberdinen datu teknikoak ikusteaz gain, inoiz ikusi gabeko zizak ikusi zituzten txikien koloretan. Herriar batek diositiba eta musikarekin eginiko muntaia ikusteko aukera ere egon zen igandean.



93 espezie ezberdin sailkatu zituzten. Haurrek berriz euren espezieak marraztu eta erakutsi zituzten. IVUYA URRUTIA

Munduko altuenei begira

Tolosa » Mendi Hamabostaldia antolatu du gaurtik azaroaren 22ra bitarte Oargi mendiko elkarteak.

A. IMAZ

Oargiko Mendi Hamabostaldia gaur hasiko dira igotzen. Tolosako mendiko elkarteak argazki erakusketak, proiektzioak, azoka eta Boulder txapelketa antolatu ditu.

Mendiko Material Azoka

Azaroaren 1etik 9ra, Oargin Mendiko Material Azoka egongo da zabalik. Asteazkenetik, 18:00etatik 21:00etara eta larunbatean 10:00etatik 21:00etara. Azoka igandean itxiko dute; 10:00etatik 14:00etara. Material bilketarako 637 83 03 80 zenbakira deitu behar da 18:00etatik aurrera.

III. Boulder Txapelketa

Egitarauren bizkar hezurra proiektzioak izango badira ere, III. Boulder Txapelketa bere garrantzia izango du. Azaroaren 22an jokatu da eta izena emateko aukera egunean bertan amaitu da, hau da, txapelketa hasi baino ordu bete lehenago, Oargin bertan.



Aurten ere Boulder Txapelketa antolatu dute Oargi elkarteak kideak. N. URRUTIA

» EGITARAUA

Urriak 28, gaur

■ **19:30ean.** Oargi elkarteak, *Petit Dru*, amerikar bide zuzena, proiektzioa Aitzol Doiarzabalen eskutik.

Urriak 29, bihar

■ **19:30ean.** Oargi elkarteak, *Broad Peak 8.047m* igoera Joxe Ramon Agirrerren, Marron-en, proiektzioa.

Urriak 30, etzi

■ **19:30ean.** Tolosako Kultur Etxe-

an, Alberto Zerainen eskutik, *K-2, 8.611m* igoera.

Urriak 31, ostirala

■ **19:30ean.** Oargi elkarteak. Iker Iriondoren eta Koldo Zubimendiren eskutik, *Korjenukskaya 7.105 metro*.

Azaroak 22, larunbata

■ **15:00etan.** Oargi elkarteak, III. Boulder Txapelketa.

Leitzako pilotariak hamaika partida jokatu dituzte asteburuan

Pilota » Aurrerakoek Nafar Jokoetan lortutako emaitzekin batera, herri ezberdinetako Txapelketetako emaitzak.

A. IMAZ

Aurrera Pilota Eskolako haurrek partidak jokatu zituzten iragan asteburuan. Nafar Jokoetan eta Rotxapeako, Burlatako, Errioxako eta Zaldibarko Txapelketetan izan ziren leitzarrak.

Nafar Jokoak eta Paleta Goma

Ostiraleko jardunaldian bi partida jokatu ziren Amazabal pilotalekuan. Nafar Jokoen barnean, bigarren partida neskek jokatu zuten Paleta Goman. Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak 30-4 irabazi zuten. Esku pilotan, Aldaregia-Arozenak 22-18 irabazi zuten Zugarraldeko bikotearen aurka kadeteetan.

Hortik aurrerako partida guztiak larunbatean jokatu ziren. Amazabalen 4 partida ikusteko aukera egon zen: Eskudero-Lezea

bikoteak 18-9 irabazi zuten jaialdiko lehen lehia. Ondoren, Aurrerako hiru bikote nagusitu ziren euren partidetan: Igartuak eta Saralegi 18-11, Zubiria-Galartza bikoteak 18-4 eta Onsalok eta Erasok 22-5.

Lizarran, Sagastibeltza Lasarte eta Olanok 18-5 irabazi zuten. Atarrabian, Mitxaus-Barberena 18-8 nagusitu ziren eta Zubirin, Gil-Eraso bikoteak, 18-13 galdu zuten.

Txapelketa ezberdinak

Rotxapeako Txapelketan, infanti- len mailako finala jokatu zen ostiralean. Bertan, Olanok eta Hermandorenak 6-18 galdu zuten Agirrerren eta Bernaberen aurka.

Burlatako Txapelketan, larunbatean, Olanok Jaunarena bikoteak 18-5 irabazi zuten.

Errioxako Txapelketan, igandean, Sagastibeltza Lasarte-Petite bikoteak 18-9 irabazi zuten Dario-Barkaiko bikoteari. Lizarrako Txapelketan, igandean, Xabier Jaunarenak Alegiako Zabalaren aurka 18-10 galdu zuten. Zaldibarren Jon Jaunarenak 22-3 irabazi zuten eta Legazpin 22-13.

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Asteasu.** Gorringo taldeak 1.728 *animali kontu* antzezlan emango du udaletxeko zine aretoan, 18:30ean. Haurrei zuzendutako emanaldia da Kultur Jardunaldien baitan egiten den saio hori.

Erakusketa

■ **Alegia.** Herria kantuan emanaldiaren proiektioa izango da Kultur Etxean 18:00etatik 20:00etara.
■ **Ibarra.** Jon Cazenave argazkilararen erakusketa Palestinari bu-

Finalera heldu dira



Behar-Zanako pilotaria, herenegun, sake bat egiten. IYUYA URRUTIA

ERREDAKZIOA

Herenegun lortutako garaipenarekin Endika Abril errebote Txapelketako finalerako sailkatu dira Villabonako Behar Zana elkarteak. 13-11ko emaitzarekin gailendu ziren Zubieta taldearen aurka etxean jokaturako partidari.

«Giro polita izan zen; egia esan, Zubietako jarraitzaile gehiago zeuden baina gureak ere ederki animatu zuten», azaldu zuen Igor Alejo jokalaria.

Partida erraz hasi zen etxekoentzat (9-2), (10-3), (11-4), baina «nerbioengatik-edo» gerturatu egin ziren aurkariak markagailuan (12-6). «Oso hasiera ona izan genuen. Azkenean estuago ibili ginen baina gure joko egiten jakin genuen».

Donibane Lohizunekoaren aurka, «oso partida zaila»

Finala, azaroaren 2an, datorren igandean, jokatuko dute 11:00etan Oiarzunen, Donibane Lohizuneko Luzaz Gazte taldearen aurka. Euria eginez gero bi aste beranduzko jokatu dute.

«Frantziako ligako irabazleak dira eta oso partida zaila izango da; %99ko aukera daukagu galtzeko; hala ere, irabaztera joango gara».

ruz eta Paz y Tercer Mundo GKEK emandako argazkiak Benito Izagierre kultur etxean.

■ **Tolosa.** Vanessa Alzateren pintura, eskultura, grabatu eta collageak ikusgai Aranburu Jauregian.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Jose Ramon Agirre *Marron* mendizaleak Broak Peak-eko (8.047 metro) igoera azalduko du proiektio baten bidez, 19:30ean, Oargi mendi elkartearen, Mendi As-tearen barruan.

Kultur Hamabostaldia

■ **Oresa.** *Abiadura handiko krisiak* hitzaldia, Joseba Barandiaran eko-nomilariaren eskutik, 21:30etik.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Osasun eta Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten herriko talde eta elkarteentzako diru laguntza deialdia. Informazioa, udaletxean eta www.tolosaldeko hitza.net.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunikuzinik.

A Agurrak



Zorionak!

Jose eta Valentina. Herenegun zuen urrezko etzeiak ospatu genituen. 50 muxu potolo zuen famili osoak.



Urte askoan!

Hegoi Baraibar Goñi (Areso). Muxu handi bat atzoko partetik zure 4. urtebetetzean. Berrobiko atton-amonen partetik.



Urte askoan!

Unai Ormazabal Karrera (Tolosa). Zorionak eta muxu handi bat zure lehen urtebetetzean.

PURR & TORRITS eta MARI TORITS

PANPINAK

DVDa berria etxeko txikiak jolasteko

DVDa (posterra opari) 18€

Panpina bakoitza (txapa opari) 20€

Egin eskaria amaitu baino lehen 902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info adierazi harpidedun kodea

hitza

Basatia

ARTURAREN GIROLA BERRI MAGAZIA

Eskura ezazu berriekin

Azaroak 1

bertarain 3,99€

bertaria

Pausoka Akademia

ERREFORTZU KLASEAK:

(materia guztiak)
Lehen hezkuntza, D.B.H. eta Batxilergoa

HIZKUNTZAK:

Ingelera, Frantsesa, Italiara, Arabiera, Euskara eta Gaztelera atzerriarrentzat

TALDEKAKO ETA BANAKAKO KLASEAK ANIMA ZAITEZ, IRAKASLE EZIN HOBEAK DITUGU!

Martin Jose Iraola, 2. beheka • TOLOSA
mug.: 686971962 • Tel.: 943 67 24 48